



GURASO BILERA

LH 4

2024- 2025 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
3. METODOLOGIA
4. JANGELA EREDUA
5. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA
6. LAN-AZTURAK. GURASOEKIN ELKARLANEAN
7. HELBURUAK ARLOZ ARLO
8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
9. OSASUN ARRETA
10. ZENBAIT OHAR
11. ERANSKINAK:
 - a. Orduategia
 - b. Jangelako dekalogoia
 - c. Inauterietako mozerroa

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

TUTOREAK:

4.A ANDREA BARRA abarra@zurriolaikastola.eus

4.B MAITE CRAMOIX mcramoix@zurriolaikastola.eus

4.C MIKEL SOROA msoroa@zurriolaikastola.eus

Heziketa fisikoa (A-C): MIKEL SOROA msoroa@zurriolaikastola.eus

Heziketa fisikoa (B): UNAI ARREGI uarregi@zurriolaikastola.eus

Gaztelania (A-C): MAITE CRAMOIX mcramoix@zurriolaikastola.eus

Gaztelania (B): MIKEL SOROA msoroa@zurriolaikastola.eus

Musika: IGOR BILBAO ibilbao@zurriolaikastola.eus

Ahozotasuna eta antzerkia: IKER IRAZUSTA iirazusta@zurriolaikastola.eus

Ingelesa: ANDREA BARRA abarra@zurriolaikastola.eus

Aholkularia: JONE REGLA jregla@zurriolaikastola.eus

LH-ko etapa burua: PAULA GONZALEZ etapaburuah@zurriolaikastola.eus

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Urtean idatzizko 3 ebaluazio-txosten helaraziko zaizkizue. Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartzeko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharrekoa mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Hortaz gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari Ikastolako webgunea gaineratu behar zaio.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

Zurriola Ikastola 3 lerrotako ikastola izanik, LHko maila bakoitzeko ikasleak 3 oinarriko taldeetan banatzen dira, eta talde bakoitzak irakasle tutore/erreferente bat du. Etapa hau bi ziklotan banatzen dugu, bata LH1-3 bitarte eta bestea LH4-6 bitartekoa. Taldekatzeak ziklo bakoitzaren hasierarako berrituko dira. Dena dela, modu ez-ohikoan eta hainbat arrazoi medio, Zuzendaritza taldeak, LHko Talde Pedagogikoak eta irakasle-taldeak hala erabakitzen badu, zikloan zehar taldekatzeak aldaketak izan ditzakete.

Mailako gela bakoitzaren arlokako ordutegia desberdina da talde bakoitzean. Ikasturte honetako ordutegiak txostenaren eranskinean aurkituko dituzue.

3. METODOLOGIA

Ikastolan haurrentzat proposatzen ditugun espazio, material, jardura eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketa zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

LH1, 2 eta 3n libururik gabe jardun ostean, LH4n eskola liburuak txertatzen dira zenbait arlotan, eta hauek izango dira arlo hauetan landuko denaren oinarri.

Errefortzu saioak

Ikas-prozesuan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko matematikan laguntza gehigarria eskaintzen dugu. Tutoreak edo arlokako irakasleak zuzenduta izaten dira saio hauek eta ikasle talde txiki bati zuzenduta egoten dira.

Errefortzuak orduz barne izango dira, eta hauetan bigarren irakasle bat sartuko da gelan. Ikasleren bat errefortzuan hartuko bada familiei adieraziko zaizue.

4. JANGELA EREDUA

Jangelako orduetan, bazkaltzeaz gain, beste balore eta helburu batzuk lantzen ere saiatzen gara. Bazkaltzea ez da helburu bakarra. Eremu honetan hainbat alor lantzeko aukera dago: ardura, autonomia, motrizitatea, garapen emozionala, ingurunearekiko sentiberatasuna, mahaian eduki beharreko ohitura egokiak... Ikasleei protagonismoa ematea bilatzen du, jangelako tarte horretan beraien parte-hartzea areagotuz.

Ategorrietako ezaugarriek eta antolaketak ikasleek bazkaltzeko duten denbora luzatzea baimentzen du, eta adinaren arabera ikasleek mahaia jarri, mahaia jaso, aulkiak bildu, ingurua txukundu... egingo dute. Ikasleak mahai borobiletan eseriko dira, eta beraietako bat arduraduna izango da. Ikasleekin geletan landuko den dekalogoaren eranskinean duzue.

5. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA

EKI PROIEKTUA

Ikasturte honetan matematika, ingurunea, gaztelania eta ingelesa arloetan EKI proiektuarekin hasiko gara. Eki proiektua EHko ikastolen hezkuntza proiektu propioa da.

Euskal Curriculumaren barneratzen du, honakoak sustatuz:

- Pertsonaren garapen osoa lantzea.
- Euskal kulturaren oinarriak eskuratzea.

Kompetentzien lanketan oinarritzen da:

- Edukiak ikasi eta metatzea ez da azken helburua.
- Edukiak baliabidetzat hartzea.

Integrazioaren pedagogia da aukera metodologikoa:

- Ikasleari benetako egoera esanguratsuak planteatuko zaizkio, irtenbidea aurki dezan.
- Helburua da ikaslea unitate bakoitzaren amaieran zeregin batzuetan kompetentea izatea.
- Horretarako proposatutako egoera bati irtenbidea eman beharko dio, ikasitako edukiak erabiliz.


Unitate didaktikoaren garapena

Bost unitate ditu ikasturteko. Unitate bakoitza hiru fasetan banatzen da:

1. Diziplinarteko hasiera fasea
2. Arlokako sekuentzia fasea:
 - Ingurunea
 - Matematika
 - Gaztelania
 - Ingelesa
3. Diziplina arteko amaiera fasea.

Arlokako sekuentzia fasea, era berean, beste hiru fasetan banatzen da.

1. Hasierako fasea: Zer, nola eta zertarako? Egoeraren aurkezpena egiten da.
2. Garapen-fasea: Edukiak eskuratzen dira eta hasierako egoerari aurre egiten zaio.
3. Amaierako fasea: Egoera berriei aurre egiten zaie.



Jarduera motak

- Ahozko jarduerak
- Idatzizkoak: arloko liburuak
- IKT jarduerak:
 - www.ekigunea.eus: Bertan IKT- jarduera fitxak, audioak eta bideoak aurki ditzakezue
 - GOOGLE KONTUA: Bertan posta, drive, egutegia... dituzte. Arazoak ekiditeko eta erabiltzen laguntzeko, beharrezkoa da gurasoen jarraipena.
 - CLASSROOM-aren bidez:
 - Eskatutako ariketak bertan jarriko dira eta bakoitzak bere dokumentua beteko du.
 - Ikasleek talde-lanak eta hainbat proiektu bertan gauzatuko dituzte.
 - DRIVE-aren bidez:
 - Ikasle bakoitzak karpeta bat izango du ikasturte osorako. Bertan, eskatutako lanak gordeko ditu.

Materiala

- Mailegu-sistemako liburuetan ez dugunez ezer idatziko (matematikakoan izan ezik) ikasle bakoitzak aniladun 5 karpeta izango ditu (arlo bakoitzari kolore bat dagokio). Karpeta horietan fitxa ezberdinak sartzen joango dira.
- Funden karpeta: bertan musikako jarduerak egongo dira.
- Marradun koaderno handia: idazlanak egingo dituzte bertan.
- Liburu hauen zaintza ikasleen ardura da, ikastolan geldituko baitira datozen urteetan erabili ahal izateko.
- Gelan ordenagailu kaxa daukagu eta ikasle bakoitzak zerrendako zenbakiaren arabera, berea erabiliko du.

Ebaluazioa

Unitate bakoitzean arlo ezberdinek bere helburu didaktikoak dituzte. Ondoren, unitatearen bukaeran, landutakoa zerbait gauzatzeko erabiliko dugu, eta arloko kompetentzia izango da hori. Azkenik, arlo ezberdinetan landutakoa integratzeko diziplinarteko kompetentzia orokorra izango dugu.

Laburbilduz: zer eskaintzen digu EKI proiektuak?

- Kompetentziak lantzen ditu.
- Proiektuak baliatzen ditu ikasitakoa erabiltzeko. Metodologia horrek ikasleen motibazioa areagotzen du.
- Autonomia bultzatzen du, ikaslea da protagonista.
- Bost ikasgaien arteko koordinazioa bermatzen du.
- IKT-ak proiektu eta jardueretan integratuta daude.

TUTORETZA SAIOAK

Astean ordubetez espreski, tutoreak ikasleen jarraipena bideratzen du, taldekoa zein norbanakoa. Ikasleei ikastolako egunerokoan parte-hartzeko bidea ematen zaie, beraien kezka, kexa eta iradokizunak batzar bidez plazaratzeko. Bestalde, orientazio departamendutik diseinatutako tutoretza-plana aurrera eramateko saioak bideratzen dira.

EUSKARA

EKIk proposatutako metodologian oinarrituz, baina gelako aniztasunari modu zabalagoan erantzuteko eta gure Ikastolako ikasleen errealitate linguistikoari hobeto erantzuteko, gure euskararako material propioa sortu dugu. Material hau hiruhileko bakoitzean proiektu batean zentratuz gauzatuko dugu (errezetak, ipuinak, olerkiak eta jolasak), eta, gai hauetan oinarrituz, hizkuntzaren helburuak eta konpetentziak lortzera bideratuta egongo da ikasle bakoitzaren garapenerako aproposa den eskaintza eginez.

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA

Musika munduko edozein tokitan hitz egin eta ulertu daitekeen hizkuntza unibertsala da. Horregatik, musikak dituen ezaugarriak eta bere garrantziaz ohartaraztea da maila honetako helburu nagusia. Horretarako mugimendua, ahotsa, erritmoa, eta instrumentazioaren hastapenak landuko dira nagusiki, horiek sortuz, erabiliz eta jasoz. Gainera, musika eta dantzak garrantzia handia izan du gure identitateari dagokionez; beraz, musika saioa euskal kulturaren eta euskal-ohituren transmisio-unea ere izango da. Musika saioetarako txirula ekarri beharko dute ikasleek.

HEZIKETA FISIKOA

Adin honetako haurrek mugimendua ezinbestekoa dute. Mugimendua osasunarekin lotzeaz gain, norberaren gorputzaren gaitasun motorrak ezagutzea eta jolasaren bidez horiek garatzea da gure helburu nagusia. Horreratako ekintza ezberdinak proposatuko ditugu: bakarkakoak, bat baten aurkakoak, elkarlanekoak, elkarlaneko-aurkakotasunekoak, ziurgabetasunekoak eta adierazpenekoak. Horietan guztietan arauen betetzeaz gain partehartzea ere sustatuko da.

- Egun horretan kirol arropa ekarri beharko dute.
- Ikasleren batek gorputz hezkuntza egiterik ez balu, aste-egitarauan idatziz justifikatu beharko luke .
- Bigarren zikloan astean bi ordu eskainiko zaizkio.

BALOREAK

Adin honetan, haurrak transizio-garai bat izaten du, banakako pertsona sentitzetik beste pertsona batzuekin dituen harremanak garrantzia gehiago hartzen duelarik. Ondorioz, bizikidetzaren esparruan, bere gertukoak diren testuinguruetan (familia, ikastola, auzoa) sortzen diren egoeren kudeaketarako erramintak eta estrategiak lantzen dira, Bestalde, besteekiko errespetuzko jokabideak sustatzen dira, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko elkarbizitza helburu izanik.

IRAKURKETA

Irakurketak duen garrantzia kontutan izanik, arlo hau ezin da ikastolan bakarrik landu. Etxean ere landu beharrekoa da, eta egunero 10-15 minutu irakurtzea komeni zaie. Horretarako, gurasoen partaidetza beharrezkoa da: animatuz, elkarrekin irakurriz...

Irakurketa etengabe lantzen da euskaraz zein gazteleraz, mekanika eta ulermena garatzeko asmoz.

ASTE-EGITARAUA

Ikasleak bere lanak antolatzeko tresna izaten jarraitzen du, eta gurasoek horren jarraipena egitea behar-beharrezkoa da.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

- Eki proiektuarekin guztiz bat datorren Ikaskuntza Kooperatiboa lantzen dugu maila honetan ere. Metodologia honetan talde txikitik lan egiten dute ikasleek ondorengo helburuak lortzeko:
 - Berdintasunezko parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatzea.
 - Aldibereko elkarreragina indartzea.
- Hau kontuan izanik ondorengo alderdiak nabarmendu daitezke:
 - Ikaskuntza Kooperatiboko taldeko kideek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak irakatsitakoa ikastea eta taldekideekin kooperatzea.
 - Irakasleak bi helburu ditu: ikasleek eskolako edukiak ikastea, eta aldi berean, taldean lan egiten eta solidario izaten ikastea.
 - Helburua geroz eta maizago elkarlanean aritzea izango da .
 - Ikaskuntza kooperatiboa ikasleek ikasi beharreko curriculum eduki bat gehiago izango da.

TAILERRAK. ELKARREKIN SORTUZ

- Astean bi orduz musika-plastika-antzerkia lantzeko tailerrak izango dituzte. Ikaslea tailer guztietatik pasako da hiruhilekoan zehar.
- Tailerra momentu konkretu batean gauzatzen da, gai zehatz baten inguruan, ikasleari testuinguru bat sortzen zaio eta eredu batzuk eskaintzen zaizkio, eta material/baliabide anitzetik abiatuz produktu bat sortzeko aukera eskaintzen zaio.
- Eskainitako ziurgabetasunezko esperientzien edo erronken aurrean espero da ikaslearengan ideiak, hipotesiak edota galderak sustatzea, hau da, hausnarketa bideratzea.
- Produktuaren sorrerarako teknika ezberdinak erabiltzen dira, baina, tailerren helburua ez da konpetentzia instrumentala (egiten jakin) soilik garatzea, tailerren helburua zehar konpetentziak garatzea da (kritikotasuna, sormena, erabakitze gaitasuna, kooperazioa...). Noski, aukeratutako gaiaren arabera disziplina baitako konpetentziak ere landuko dira bide batez.
- Hori dela eta, ez da ereduaren erreproduzioa bilatzen, produktuaren sorreran, ikertzea, berritzea, transformatzea, pertsonalizatzea, baizik. Prozesuak azken emaitzak bezain besteko garrantzia edo gehiago izango du.

6. LAN-AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN

Jakina den bezala gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, hain zuzen ere, gure zikloari dagokionez, lan-aztura egokiak eta jarrera baikorrak garatzea oinarritzokoa deritzogu. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

- Etxerako lanak:
 - Aste-egitarauaren jarraipena egin behar da, seme-alabei lanak egin behar dituztela gogorarazi eta egin dituztela ziurtatu.
 - Bertan idatzita eramango dituzte etxerako lanak. Idatzita dagoen egunerako egin behar da lana.
 - Ahal dela, toki eta ordu berean egin ditzatela.
 - Ez utzi azken unerako/bezperarako.
 - Ardura ikaslearena da eta autonomia garatzen lagunduko dio.
- Irakurketak ikasketaren prozesuan duen garrantzia kontutan izanik, ikasleek etxean irakurketari egunero tarte bat eskaintzea beharrezkotzat jotzen dugu

(10-15min.). Horretarako, ikasleek liburu bat eduki beharko dute beti motxilan bai gelan eta bai etxean irakurri ahal izateko.

- Materialaren antolaketa:
 - Ordenaren jarraipena: Koadernoak, liburuak, motxila...
- Motibazioa:
 - Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
- Euskaraz bizi:
 - Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian euskarazko jarduerak egitera animatu.
- Eskolaz kanpoko jarduerak:
 - Ikasle bakoitzaren beharrak desberdinak direla kontutan hartu.
 - Jarduera kopurua hausnartu eta baloratu.
 - Lehentasunak gurasoek markatu.

Lanerako garaian aztura hauek landuko ditugu nagusiki:

- Autonomia
- Lagunei laguntzeko prest egotea
- Besteen lanak baloratzea
- Adi egotea
- Lanak garaiz hasi eta bukatzea
- Postura egokian lan egitea
- Txukuntasuna
- Materiala zaintzea

7. HELBURUAK ARLOZ ARLO

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ebaluazio txosten bat jasoko duzue gurasoek posta elektronikoko bidez. Bertan, ikasleek arlo bakoitzean lortutako helburu didaktikoak adieraziko dira, eta hauen lortzen maila. Zenbait kasutan, bestelako xehetasunak ere adieraziko dira, helburua lortu ez bada, noraino iritsi den, adibidez.

Txosten honekin batera jangelako erabiltzaileen gurasoek informe bat ere jasoko duzue.

Jarraian dituzue arloz arlo hiruhileko bakoitzean lortu beharreko helburu didaktikoak.

NORBERA IZAN ETA ELKARREKINTZA

- Bai gelan eta bai gelatik kanpo euskara erabiltzea.
- Lanean era autonomoan aritzea.
- Arrazoitzeko gaitasuna erakustea.
- Gelako zein taldeko jarduera eta elkarrizketetan parte hartzea.
- Lanerako jarrera egokia azaldu du eta denbora aprobetxatzea.
- Talde lanetan zein inguruko pertsonekin begirunez jokatzeko.
- Gelako jardueretan bere buruarekiko konfiantza erakustea.
- Egoera ezberdinetan bere emozioak eta ekintzak autoerregulatzea.
- Banakako lanean arduratsu azaltzea.
- Lanak ongi egiten ahalegintzea, zailtasunei aurre egiteko jarrera eta hobetzeko nahia erakustea.
- Gelan erno eta langile aritzea eta lanean zentratzeko gaitasuna azaltzea.
- Baliabide digitalekin arduraz aritzea.

EUSKARA

1.hiruhilekoa

ERREZETAK

AHOZKOA:

- Lan ezberdinak taldearen aurrean aurkeztea ahoskera, gorputz adierazpena eta tonua zainduz.

IRAKURKETA

- Egunerokoa irakurritako testu idatziak ulertzea.

IDAZKETA

- Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (jarraibide testuak) errespetatuz testu koherenteak sortzea.
- Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea.

2.hiruhilekoa

IPUINAK

AHOZKOA

- Ipuin ezberdinak taldearen aurrean irakurtzea puntuazio-markak errespetatuz eta narratzailearen eta pertsonaien ahotsak bereiziz.

IRAKURKETA

- Landutako narrazio testuak ulertzea.
- Aukeratutako liburuak gogoz irakurtzea.

IDAZKETA

- Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (ipaina) errespetatuz testu koherenteak sortzea.
- Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea.

| |
|---|
| 3.hiruhilekoa |
| OLERKIAK |
| AHOZKOA <ul style="list-style-type: none"> • Lan ezberdinak taldearen aurrean aurkeztea ahoskera, gorputz adierazpena eta tonua zainduz. |
| IRAKURKETA <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokoan irakurritako testu idatziak ulertzea. |
| IDAZKETA <ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (olerkia) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea. |

| |
|---|
| GAZTELANIA ETA LITERATURA |
| 1.hiruhilekoa |
| 4.1 DIMINUTOS SERES VIVOS 4.2 ¿TE GUSTA? |
| <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokoan erabili diren testu mota ezberdinak (ipuinak, jarraibide testuak eta azalpen testuak) ulertzea. • Sortutako testuak zuzentasun ortografikoz idaztea. • Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (ipuinak eta jarraibide testuak) errespetatuz testu koherenteak sortzea. |
| 2.hiruhilekoa |
| 4.3 TOC, TOC... 4.4 TRES ENTRADAS, POR FAVOR |
| <ul style="list-style-type: none"> • Testu mota ezberdinak (deskribapenak eta gidoiak) ahoz azaltzea. • Landutako ahozko eta idatzizko testuak ulertzea. • Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (deskribapen testu eta antzerki-gidoiak) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea. |
| 3.hiruhilekoa |
| 4.5 SÍ PUEDO |
| <ul style="list-style-type: none"> • Testuen irakurketa adierazkorra egitea. • Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (elkarrizketak) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea. |

| MATEMATIKA |
|--|
| 1.hiruhilekoa |
| 4.1 EROSKETAK NEURRIAN 4.2 JOLASEAN IKASIZ |
| <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketa aritmetikoak egiteko mekanikak barneratu, eta buruzko kalkulu egokiak egitea. • Datuak emateko erabiltzen diren adiera ezberdinak (taulak, infografiak...) interpretatu eta batetik bestera pasatzea. • Oinarrizko magnitudeen (dirua eta pisua) unitateak barneratu, eta horien arteko baliokidetasunak erabiltzea. • Mota ezberdinetako problemak ulertu eta ezagutza matematikoak aplikatuz ebaztea. |
| 2.hiruhilekoa |
| 4.3 GEOMETRIA BIDELAGUN 4.4 ZENBAKIEN MUNDU HARRIGARRIA |
| <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketa aritmetikoak egiteko mekanikak barneratu, eta buruzko kalkulu egokiak egitea. • Oinarrizko magnitudeen (distantzia eta ordua) unitateak barneratu, eta horien arteko baliokidetasunak erabiltzea. • Irudi eta gorputz geometrikoak identifikatu eta deskribatzea. • Mota ezberdinetako problemak ulertu eta ezagutza matematikoak aplikatuz ebaztea. |
| 3.hiruhilekoa |
| 4.5 CITIUS, ALTIUS, FORTIUS |
| <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketa aritmetikoak egiteko mekanikak barneratu, eta buruzko kalkulu egokiak egitea. • Unitateen arteko batuketak eta kenketak (denbora) egitea. • Oinarrizko magnitudeen unitateak (distantzia, pisua eta edukiera) erabili eta horien arteko baliokidetasunak ulertzea. • Mota ezberdinetako problemak ulertu eta ezagutza matematikoak aplikatuz ebaztea. |

| INGURUNEAREN EZAGUTZA |
|---|
| 1.hiruhilekoa |
| 4.1 PASTELA, USTELA 4.2 KONTUZ! OINEZKOAK BIDEAN |
| <ul style="list-style-type: none"> • Elkarlanean arituz, ikerketak antolatu, gauzatu eta ondorioak ateratzea. • Izaki bizidunen eta bizigabeen arteko desberdintasunak identifikatu, adierazi eta sailkatzea. • Bizidunen kate trofikoa ulertu eta barneratzea. • Emandako instrukzioak ordenatuz eta jarraituz, jostailuzko kotxea eraikitzea. |

- Landutako trafiko arauak ezagutzea.

2.hiruhilekoa

4.3 BIDAIARI AUSARTAK 4.4 GERO ETA GEHIAGO GARA

- Mapan kontinenteak eta ozeanoak identifikatzea.
- Munduko klima nagusiak identifikatu eta horietako bakoitzeko animalia eta landareak izendatzea.
- Historian zehar izandako esploratzaile batzuen bidaiari buruzko informazioa antolatu eta ondorioak ateratzea.
- Herrialde baten inguruko informazioa bildu, aukeratu eta antolatzea eta bertara joateko bidaia aurkeztea.

3.hiruhilekoa

4.5 GU ERE ENTRENATZAILE

- Giza gorputzaren eraketa ezagutzeko, emandako iturrietatik informazioa eskuratu eta terminoak erlazionatzea.
- Elkarlanean arituz, gorputzaren mugimenduak ezagutzeko ikerketak antolatu, gauzatu eta ondorioak ateratzea.
- Elkarlanean, emandako eta jasotako ariketen jarraibideak ulertuz eta ordenatuz ariketak burutzea.
- Gizakion ugalketa eta ugal aparatuen desberdintasunak ezagutzeko informazioa ulertu, interpretatu eta adieraztea.
- Animalien ugalketarekin lotura duten terminoei esanahia eman eta haien arteko erlazioak identifikatzea.

MUSIKA

1.hiruhilekoa

- Gelan landutako edota asmatutako 3-4 notetako doinuak instrumentuz interpretatzea.
- Erritmo irudi zein eskemak ezberdinak (ostinatoa edota errepikapena) irakurri eta interpretatzea, azentoa markatuz.
- Abesti baten forma musikala (sarrera, estribilloa, estrofa...) identifikatu eta modu ezberdinetara adieraztea.
- Munduko dantza tradizional baten lanketa eta aurkezpena burutzea.

2.hiruhilekoa

- Abesti baten forma musikala (sarrera, estribilloa, estrofa, zubia, bukaera...) identifikatzea eta modu ezberdinetara adieraztea.
- Hainbat figura erritmiko dituzten 3 eta 4 pulstuko erritmo eta eskema musikalak interpretatzea.
- Landutako dantzak interpretatzea eta haietan parte hartzea.
- Batukadan oinarrituz, abesti bati erritmo ezberdinak sortzea eta interpretatzea, talde koreografia zainduz.

3.hiruhilekoa

- Gelan landutako edota asmatutako 5-6 notetako doinuak instrumentuz interpretatzea.
- Landutako teoria musikala (luzapen ikurrak, instrumentuaren familia eta sailkapena) ulertzea eta erabiltzea.
- Irudi eta pulsu desberdinetako eskema erritmiko-melodikoak ezberdintzea eta adieraztea.

HEZIKETA FISIKOA

- Landutako kirolean (artzikirola, colbola, euskal pilota, atletismoa, hockeya...), eta burututako jardueretan oinarritzko trebetasunak jasotzea.
- Jolasa oinarri hartuta, oinarritzko trebetasunak egoki lantzea.
- Proposatutako ariketetan saiatzea.
- Landutako baloreak (ikaskideekiko errespetua, joko arauen onarpena, emaitzaren onarpena...) zaintzea.

INGELESA

1.hiruhilekoa

- Landutako hiztegia eta egiturak erabiliz, jolasaren deskribapen testua ahoz eta idatziz aurkeztea.
- Aurkeztutako abestiak nahiz jarraibide eta deskribapen testuak irakurtzea eta ulertzea.
- Ogia, jolasak, erlojuarekin lotutako hiztegia eta oinarritzko egiturak, ahoz eta idatziz barneratzea.

2.hiruhilekoa

- Landutako ipuinak, testuak eta abestiak entzutea, irakurtzea eta ulertzea.
- Landutako hitztegia eta egiturak erabiliz, jarraibide testu bat ahoz eta idatziz aurkeztea.
- Hiruhilekoan zehar landutako hiztegia (bizikletaren zatiak eta segurtasun-arauak, egutegiarekin lotutako hiztegia eta landare baten zatiak) ahoz eta idatziz barneratzea.

3.hiruhilekoa

- Ahoz eta idatziz aurkeztutako jarraibide testuak jarraitzea eta ulertzea.
- Jolas parkearen inguruko jarraibide testua modu gidatuan sortzea, idaztea eta aurkeztea.
- Hiruhilekoan zehar landutako hiztegia (natura eta jolasen ingurukoak, gorputzeko atalak...) ahoz eta idatziz barneratzea.

| |
|---|
| PLASTIKA |
| 1.hiruhilekoa |
| <p style="text-align: center;">KARTAPESTA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Teknika ezberdinak erabiliz (Kartapesta) hainbat artelan original sortzea. • Egindako lanetan esku-trebetasunak erakustea. |
| 2.hiruhilekoa |
| <p style="text-align: center;">KOLOREAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Teknika eta material ezberdinak erabiliz hainbat artelan sortzea originaltasuna eta txukuntasuna zainduz. • Egindako lanetan esku-trebetasuna erakustea. |
| 3.hiruhilekoa |
| <p style="text-align: center;">ZURRIOLINPIADAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antzerkia (gidoia), plastika (atrezkoa) eta musika (dantzak eta abestiak) uztartuz joku olinpikoen ikuskizun bat sortzea. |

8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin. Aurtengo plangintzaren barruan, besteak beste, Bretxako azoka eta Albaolako Itsas Kultur faktoriarako irteerak ditugu. Data gerturatu ahala burutuko ditugun irteeren berri emango dizuegu.

Ikasturte bukaerako 3 egunetako irteerak ere egingo ditugu (maiatzak 28, 29 eta 30). LH4koak Lizarrara joango gara.

JARDUERA OSAGARRIAK:

Urtero, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo.

Maila honetan ohiko jarduerak osagarriak hauek dira:

- Hatz-10 (mekanografia programa)

- Donostiako Zinemaldia
- Koldo Mitxelena literatur lehiaketa
- TINKO euskarazko zinema
- Kontzertu pedagogikoak (EOS)
- Heziketa afektibo sexuala

OSPAKIZUNAK:

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3ean
- San Tomas: abenduaren 20an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 17an
- Santa Ageda: otsailaren 4ean
- Kaldereroak: otsailaren 7an
- Inauteriak: otsailaren 28an
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 17a

9. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika eman eta dagokien osasun arreta eskaintzeko garaian. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen tutoreari adierazi, tutoreak emango dizuen informazio-orria bete eta, behar den kasuetan, medikuaren agiria ekarri beharko duzue. Tutoreak helaraziko dizuen fitxa horretan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren

txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero ikastolako kideek nola jokatu behar dugun adierazi behar da.

- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Haurren batek bestelako gaitz kutsakorren bat balu tutoreari berehala abisatzea eskatzen dizuegu (Aftak, konjuntibitisak, zorriak, heste-zizareak, gastroenteritisa,...).

Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta arazo hau Ategorrietako jangelakoentzat berria bada (LH1ekoa delako, orain arte jangelakoa ez zelako edo arazoa berria delako), osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

ISTRIPUEN KUDEAKETA (BETI POLIKLINIKAN)

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleek POLIKLINIKARA joan behar dute (larrialdietara), aseguruarekin hitzartutako osasun-zentroa baita. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu parte" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta parte hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abixua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezaten.

Garrantzitsua da Ikastolan gertatutako istripuen ondorioz OSAKIDETZARA EZ JOATEA. Medikuarreta hori ez da osasun-zerbitzuan sartzen eta, ondorioz, Ikastolaren gain geratzen da eta Osakidetzak ikastolari zerbitzua kobratuko dio.

10. ZENBAIT OHAR

A) EUSKARA

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

B) PUNTUALTASUNA

Sarrera orduetan garaiz iristeari garrantzi handia ematen diogu. Arrazoiak:

- Ikasleek puntual iristen ikasi behar dute.
- Berandu sartzan direnak nabarmendu egiten dira eta ez dira eroso sentitzen.

C) ASISTENTZIA-HUTSAK

Ahal den guztietan aste egitarauan aurrez idaztea eskatzen dizuegu zergatia adieraziz. Momentuko erabakia balitz, irakasleari e-posta bidez helaraztea eskertuko genuke.

D) ARROPA

Ikasleen arropetan izena jartzea beharrezkoa da.

E) URTEBETETZEAK

Ikasle guztien urtebetetzeak gelan ospatzen ditugu. Urteak betetzen dituen ikasleak bizkotxo eta KANDELAK ekarri behar ditu. Mesedez eskatzen dizuegu etxeko ospakizunak ikastolatik kanpo antolatzea.

F) PATINETEAK, BIZIKLETAK ETA BESTELAKOAK

Ikastola barnean hauen erabilera debekatua dagoenez, behin atea zeharkatuta ikasleak oinez joan beharko dira. Bizikletak eta patineteak sarreraren eskuinaldeko aparkalekuetan utziko dira lotuta.

G) SMARTWATCH-AK, SAKELEKOA ETA BESTELAKO GAILU ELEKTRONIKOAK

Ikasleek ezingo dituzte mugikorak, smartwatch-ak eta baimendu gabeko bestelako gailu elektronikoak ikastola eremuan gainean eraman. Ikastolara ekartzekotan, motxilan gordeta izan beharko dituzte Ikastola eremutik atera arte.

H) IKASLEEN IRTEEREN ANTOLAKETA

Gogorarazi nahi dizuegu LHko ikasleen jarduna arratsaldez **16:30**ean amaitzen dugula. Horregatik, zuen seme alabak ordu horretan jaso behar dituzue.

Atearen irekiera eta itxiera:

- Irekierak: 8:50 (ate nagusia), 12:30 eta 14:25 (ate txikia) eta 16:30 (ate nagusia)
- Itxierak: 9:05 (ate nagusia), 12:40 eta 14:35 (ate txikia) eta 16:45 (ate nagusia)

11. ERANSKINAK

A) ORDUTEGIAK

LH 4.A - ANDREA

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|--------------|--------------|--------------|------------|-------------|
| EUSKARA | MATEMATIKA | MATE TXOKO | INGURUNEA | EUSKARA |
| GAZTELANIA | INGELESA | | GAZTELANIA | INGURUNEA |
| | | | | |
| MUSIKA | AHOZKOTASUNA | HEZ. FISIKOA | EUSKARA | LIBURUTEGIA |
| | | | | |
| MATEMATIKA | TAILERRAK | INGURUNEA | INGELESA | INGELESA |
| HEZ. FISIKOA | | BALOREAK | MATEMATIKA | TUTORETZA |

LH 4.B - MAITE

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|--------------|-----------|----------------|--------------|----------------|
| EUSKARA | MATE | MATE- TXOKO | MATE | MATE ERREF. |
| INGELESA | MUSIKA | | INGELESA | LIBURUTEGIA |
| | | | | |
| HEZ. FISIKOA | GAZTE | AHOZKOTASU | EUSKARA | INGELESA |
| | | | | |
| BALOREAK | TAILERRAK | GAZTE | INGURUNEA | EUSKARA |
| INGURUNEA | | INGURUNEA | HEZ. FISIKOA | TUTORETZA |

LH 4.C - MIKEL

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|-------------|--------------|------------|--------------|--------------|
| EUSKARA | HEZ. FISIKOA | MATE TXOKO | MATEMATIKA | HEZ. FISIKOA |
| MATEMATIKA | MATE ERRE. | MATE TXOKO | INGURUNEA | INGURUNEA |
| | | | | |
| LIBURUTEGIA | INGELESA | INGELESA | EUSKARA | EUSKARA |
| | | | | |
| INGURUNEA | TAILERRAK | GAZTELANIA | AHOZKOTASUNA | MUSIKA |
| INGELESA | TAILERRAK | BALOREAK | GAZTELANIA | TUTORETZA |

B) JANGELAKO DEKALOGOIA

GURE JANGELAKO DEKALOGOIA

- 1.** Jangela ez da jatetxe bat. Denon arduraz izango da jantokiko zerbitzua eta garbitasuna. Bertako hezitzaileek lan horretan lagunduko gaituzte.
- 2.** Jangelan errespetuzko jarrerak izan beharko ditugu:
 - Zerbitzatzen gaituenari eskerrak eman.
 - Gauzak "mesedez" eskatu.
- 3.** Janaria eta esku zikinak ez datoz bat, ezta? Jantokira sartu aurretik eskuak ongi garbitu.
- 4.** Bazkaldu aurretik denon artean mahaia jarriko dugu.
- 5.** Janaria ez dugu jolasteko erabiliko. Beraz, ez bota ogi zatirik.
- 6.** Matematikak bezala, jaten ere ikasten da! Horretarako elikagai guztiak probatu behar ditugu.
- 7.** Ssssss... Denok gustukoa dugu giro lasaiean bazkaltzea. Tonu baxuan hitz egin eta oihurik ez, mesedez.
- 8.** Jangelan presa ez da lagun ona. Beraz, mahaikideek amaitu arte ez gara mahaitik altxako.
- 9.** Bazkaltzen bukatzean hezitzaileen laguntzarekin mahaia jasoko dugu eta mahai ingurua txukun utziko dugu.
- 10.** Gure burua zaintzeaz gain natura ere zaindu beharko dugu ba! Plastikozko ontziak birziklatzera botako ditugu.

Aurretik ipinitakoak betetzeko gai al zara? Hala bada, ongi etorri ikasle!! Prest zaude Ategorrietako jangela erabiltzeko.

C) INAUTERIETAKO MOZORROA

LH 4 (LORAZAINA)



Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.

La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).